

438 zenbakia. 2001eko otsailaren 2a
JARDUN ELKARTEA

Bergarako astekaria

Berrigara

Alzheimerra

Eguneko 24 orduak zaintza behar

olo Ricorekin berriketan | Seminarioko eliza musikarako zentro bihurtuko dute



EGITARAUA

- Erakusketak
- Jokoak
- Dantzak
- Antzezlanak
- Makillaje tailerra
- Txapa tailerra
- Maskarak
- Bideoak
- Informatika
- Pailazoak

San Martin Agirre herri ikastetxean ATEAK ZABALIK

**Eskola kontseiluak ikastetxea bisitatzera
gonbidatzen zaitu**

Otsailaren 3an 16:30etik 19:30era

B. Laskurain, 25
Tel. 943 76 21 47



EGITARAUA

- Bilera informatiboa
- Ikastetxea bisitatu

Ipintza institutuan BILERA INFORMATIBOA

DBHko ikasleei (12-16 urte) eta gurasoei zuzendua

**Eskola kontseiluak ikastetxea bisitatzera
gonbidatzen zaitu**

Otsailaren 5ean, 19:00etan

B. Laskurain, 19
Tel. 943 76 31 42





Etorkinen eskubideak

Ane Miren Lizarralde / Kazetaria

Egoera latza zuten eta orain latzagoa. Argi gorria piztu da etorkinen artean, orain dela hamabost egun eskas atzerritarren legea indarrean jarri zenetik, eta okerragoa dena, ez dirudi aurki etengo denik. Alderdi popularrak prestatutako araudi zorrotzaren aurrean etorkinen protestak areagotzen ari dira eta irtenbidea erraza ez bada ere, ez dirudi borondate ona dagoenik arazoari eman behar zaion irtenbidea emateko. Etorkinek argi utzi dute euren protesta eta itxialdiekin jarraituko dutela, jarrera horrekin euren bizia arriskuan jartzen baldin badute ere.

Beldur dira, asko eta asko ia ezkutu bizi dira, eta horren lekuko azken egun hauetan han-hemenka telebistako kamerek grabatu dituzten hainbat eta hainbat gertaera. Lege berri horrek oinarritzko eskubide ugari ukatzen die etorkinei eta agiririk ez dutenak kanpora bota ditzake poliziak. Mayor Oreja Barne ministroak ez du momentuz agindurik eman paperik gabeko etorkinak atxilotzeko, baina horrek ez du esan nahi horrelako erabakirik hartuko

ez duenik, lege berriak babestu egingen baitu.

Une honetan Bartzelonan dago egoera kritikoa. Momentuz, entzerratuta dauden etorkinen artean arazo larririk ez da izan, bakarren bat ospitalera eraman behar izan dute, baina egunez egun egoera larritzen doa, eta bide horretatik joango da. Horreraino iritsi behar al gara zerbait mugitzeko edo adostutako beste politika bat indarrean jartzeko? Premiazko irtenbideren bat behar da, eta ez bakarrik orain pil-pilean dauden gertakariei amaiera emateko, baizik eta aurrerantzean etorkinei ematen zaien tratua hobetzeko»

«Premiazko irtenbideren bat behar da, eta ez bakarrik orain pil-pilean dauden gertakariei amaiera emateko, baizik eta aurrerantzean etorkinei ematen zaien tratua hobetzeko»

ematen zaien tratua hobetzeko. Milaka eta milaka dira, ez dago zenbaki zehatzik emateko modurik, baina euren ahotsetatik ateratzen da eskaera hauxe: lan eta bizitzeko aukera eduki.

Euskal Herria ez da orain arte etorkinek aukeratzen zuten toki bat. Hemen eskaintzen zaien lan mota ez da inoiz izan oso erakargarria beraiantzat, baina azken bolada honetan Andaluzian eta Mediterraneo aldean izan diren gertakizunak medio, nabaritu egin da etorkinen etorrerak goraka egin duela. Lan mailan atzerritarren lege berriak ez ditu bakarrik etorkinak kezkatzen, paperik gabeko langileak kontratatzen dituzten enpresariak ere kezkatzen ditu. Isun gogorrek jaso ditzakete paperik gabeko etorkin bat lanean hartzen baldin badute. Ba, hauxe da dagoen panorama. Etorkizuna iluna izango dela ematen du, baina badago jendea gobernuz kanpoko erakundeetatik edo boluntario gisa lan egiten ari dena, borroka egiten ari dena, panorama aldatzeko. Azken finean, etorkinen eskubideak defendatzeko lanean ari direnak.<

barruan



Lolo Rico

Idazlea

«Zaila da ume bat irakurtzera zaletzea, gurasoek ez badute irakurtzen»

6.



Iñaki Arregi

Arregi aroztegixia

«Iaz erretirau nintzan, baiña egunero egunero egitten dot taillerretik bueltatxo bat»

13.



Asier Altuna

Gidoilaria

«Luzemetraia da oraintxe bertan gehien interesatzen zaidan formatua»

21.

AGENDA ETA ZERBITZUAK

hi, gazte!



BEKAK

Udan ikasteko bekak.

Atzerriko Gaietarako Ministerioa.
Ukraina, Eslovenia, Frantzia, Luxenburg.
Hainbat epe.

2001/2002 ikasturterako bekak.

Atzerriko Gaietarako Ministerioa.
Polonia, Suedia, Turkia, Errusia,
Alemania, Malta, Ukraina. Hainbat epe.

JARDUERAK

Bertso eguna.

Bertsolari Elkarte. Otsailaren 10ean
Bertso Eguna ospatuko da Kursaalera
Batzar Nagusian, 16:00etan.

IKASTAROK

Hezkide.

Hezkide Eskola. Garapenerako
heziketa eta lankidetzak ikastaroa.
Epea: otsailak 23.

SARIAK

Amodioa.

Barakaldoko Udala. Amodiozko
gutun VI. lehiaketa.
Epea: otsailak 10.

Drogen Aurkako saria.

CREFAT. Drogen aurkako XI.
Reina Sofia sariaren deialdia. Drogamene-
kotasunaren arazoekin loturiko gaien
inguruko lanak. Epea: otsailak 28.

Finantzak.

Azterlan Finantzarioen Zentroa. Azterlan
finantzarioen XI. saria. Epea: apirilak 30.

Pintura lehiaketa.

Tuterako Udala. IX. Tuterako Hiria Pintura
lehiaketa. Epea: maiatzak 11.

LAN ESKAINTZAK

Liburutegiko laguntzailea.

Gorlizko Udala. Batxilergo edo
baliokidea. Epea: otsailak 5.

Kirol koordinatzailea.

San Adriango Udala. Gorputz
Hezkuntzako diplomadun titulua edo
irakasletza titulua Gorputz Hezkuntzako
espezialitatean; edo bestela, hiru
ikasturte gainditu izana Gorputz
Hezkuntza lizentziaturan. Gidabaimena.
Epea: otsailak 16.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpekeide, Ikasle (IISIC),
Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC)
karnetak eskuratzeko, zatoz
Gazte Informazio Gunera.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO

GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta
panelak, eta Irizar jauregiko panelak.
Telefona: 943 77 91 57.
E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net
Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00.
Larunbata: 09:30-13:30.


OHARRA. Bergarako edo inguruko
elkarte, heziketa zentru eta enpresei
eskertuko genizueke Gazte
Informazio Gunera igortzea zuen
ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta
lan-eskaintzen informazioa, bertako
gazteei nahiz probintzia guztikoei
informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Barritxukerixa

Hitzontzikeria,
hitz-jariokeria.
- Barritxukerixa
gutxiago ta
ganora geixao!



hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre

Urtarrilak 25, eguena
Urtarrilak 26, eguakitz
Urtarrilak 27, zapatua
Urtarrilak 28, domeka
Urtarrilak 29, astelehena
Urtarrilak 30, martitzena
Urtarrilak 31, eguaztena

Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
13 °C	6 °C	0,5 l/m ²
13 °C	2 °C	15,7 l/m ²
12 °C	7 °C	16,8 l/m ²
8 °C	3 °C	54,9 l/m ²
8 °C	5 °C	6,2 l/m ²
9 °C	3 °C	17,6 l/m ²
11 °C	8 °C	7,4 l/m ²

mezak

Santa Marina

Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:30.

San Pedro

Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.

Osintxu

Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:00.

Ubera

Domekak: 10:30.

San Juan

Domekak: 11:00.

Basalگو

Domekak: 13:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.

URTE-MEZAK

Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

San Pedro

Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

urbanoa

San Lorenzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,
16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20
eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak

07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00,
10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50
(Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Ola-
tik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta
20:40.

GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

kontuan hartu...

FARMAZIAK

EGUAKITZA 2:

GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

ZAPATUA 3:

ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

DOMEKA 4:

ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

ASTELEHENA 5:

MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15

MARTITZENA 6:

CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

EGUAZTENA 7:

PUV. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

EGUENA 8:

GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

OGIA

DOMEKA 4. Mizpildi

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40

Bergarako udaltzaingoa. 943 77 91 06

Antzuolako udaltzaingoa. 943 76 62 46

Ertzaintza. 943 76 53 40

Osasun Etxea 943 76 24 40

Asepeyo 943 76 16 43

Pakea 943 76 13 49

Angiozarko medikua 943 78 90 27

Antzuolako medikua 943 76 62 23

Odol emaleak 943 76 16 24

GARRAIOAK

Taxiak 943 76 19 50

UDALA

Bergarako udaletxea 943 77 91 00

Antzuolako udaletxea 943 76 62 46

Udal Artxiboa 943 77 91 32

Igerilekuak. 943 76 20 51

Kultur Etxea. 943 77 91 58

Liburutegia 943 77 91 62

Kiroldegia 943 76 56 41

Mizpirualde Egoitza. 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92

Erregistroa 943 76 13 15

Jardun 943 76 36 61

Idolaz. 943 76 65 08

Jubilatuena Etxea. Bergara. 943 76 21 40

Antzuolako jubilatuena elk. 943 76 62 71

Postetxea 943 76 26 85

Bedelkar 943 76 04 68

Akulu AEK 943 76 05 18

Udal euskaltegia 943 76 44 53

Bergarako notaritza 943 76 10 73

ZOKKETAK

MARIAREN LAGUNDIA

Ikas-bidaiaaren alde:
bi lagunendako afaria 3.761 zkia.
ETXEBERRIA ERLOJUTEGIA

200.000 pezetako balea. 0.102 zkia.

100.000 pezetako balea. 8.269 zkia.

zorionak!



Jose Mari Galeano
3an 28 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak, lagunak
eta Alo.



Maddi Basterra
8an 2 urte.
Urte askotarako eta
muxu handi bat!
Olatz.



Gorka Fernandez
2an 5 urte.
Urte askotarako!
Aitita, amama
eta izabak.



Asier Alberdi
3an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Joseba Carnicero
6an 3 urte.
Urte askotarako eta
muxu handi bat!
Etxeokak.



Miren Carnicero
6an 3 urte.
Urte askotarako eta
muxu handi bat!
Etxeokak.



Fulgencio Encabo
4an 45 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Olatz Sanz
2an 8 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak, Ane, Ne-
rea eta familiakoak.



Danel Murgiondo
6an urtebete.
Urte askotarako!
Etxeokak eta
lagunak.



Jone Murgiondo
6an urtebete.
Urte askotarako!
Etxeokak eta
lagunak.



Olatz Azkarate
6an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Txentxo
2an 42 urte.
Urte askotarako
aita! Olaia eta
Aitor.



Jon Merino
6an 2 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Rakel.



Xabier Merino
6an 2 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Rakel.



Aroa Gomez
5ean 22 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Gorka Kortabarria
7an 3 urte.
Urte askotarako eta
muxu handi bat!
Etxeokak.



Agurtzane Crespo
4an 20 urte.
Urte askotarako!
Pikabxu eta
Mondratxu.



Judith Larrañaga
5ean 21 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



Mikel Aginagalde
2an 8 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta
Nerea.



Ekaitz Irazola
4an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



Fran Ramos
7an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak eta Irene.



Tomikel
4an 34 urte.
Urte askotarako!
Asier eta Malen.



Andoni Gallastegi
7an 5 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta
lehengusuak.

jardunen agenda



■ **Bergara ezagutzen lehiaketa:** gaur, otsailak 2, lehen jardunaldia izango da. Lehiakideak 'Perretxikoak jardunian' eta 'Hik Galdeu' taldeak izango dira. Datorren asteko eguakitzean, berriz, 'Txapuzeruak'ek '3.DBH'ren aurka jokatu du. Zatozte ikusi eta ondo pasatzera! Eguakitzero, 19:30ean Kartzela Zaharrean.

■ **Kartzelako aisialdia:** Bihar, hilak 3, Gasteizko eta Eginoko irteeren diapositiba emanaldia emango da. Domekan berriz, Kartzelan bertan mahai jokua eta barruko jolasak egingo ditugu.

Hurrengo alean,
otsailaren 9tik otsailaren 15era
bitartekoan zorion agurrak
agitaratuko ditugu.

Euskalerrirako marko politiko berri baterantz

HITZALDIA

Hizlaria: Onintza Lasa

- 1 • EA eta euskal gatazkaren konponketa
- 2 • Estatutuaren markoa, itun ezbetea eta agortua
- 3 • Marko konstituzionalaren defizit demokratikoa
- 4 • Akordio politiko baterako proposamena
- 5 • Euskaldunok eta gure autodeterminatzeko eskubidea
- 6 • Euskal errepublika bat European
- 7 • Subiranotasunaren gauzatze prozesua
- 8 • Euskalerrirako erakunde berriak

Miguel Altuna institutuan
otsailaren 8an, 19:00etan


eusko
alkartasuna



Lolo Rico idazle, gidolari eta telebistako hainbat saioren zuzendaria Bergaran izan zen eguaztenean, Aranzadi ikastolak gonbidatuta. Ricok 'Seme-alabek liburu bat eskatuz gero' gaiaren inguruko hitzaldia eskaini zuen.

LOLO RICO
Idazlea

«Gurasoek irakurtzen ez badute zaila da umeak zaletzea»



Ricok 'Si tu hijo te pide un libro' liburua argitaratu berri du.

G. Zer jakin behar dute guraso eta ikasleek umeengan irakurzaletasuna pizteko?

E. Ume batek liburu bat hartzeko motibazioa izan behar duela. Liburuak atentzioa ematea beharrezkoa dela.

G. Zelan piztu umeengan irakurzaletasuna?

E. Etxean hasi beharra dago. Ipuinak kontatu behar zaizkie umei, etengabe. Baina, baita ikastetxeetan ere, nahiz eta eskolan hasi berriak izan eta irakurtzen ez jakin. Baina, batez ere, gurasoek kontatu behar dituzte ipuinak, istorioaren gaineko interesa piztu daitekeelako, bide afektibo ahaztezin batetik. Behin umeak irakurtzen ikasi duenean, ezin da umea bakarrik utzi. Izan ere, oraindik ez daki dekodifikatzen berbek berez duten zeinu piloa. Oraindik ere, nagusiek irakurri behar dizkiete ipuinak.

Bestalde, zaila da ume bat irakurtzera zaletzea, gurasoek ez badute irakurtzen.

G. Eta ikastetxeek?

E. Ikastetxeetara itzuliz, irakurketa interesatu gabea bultzatu beharko lukete. Eta ez umeak behartu interesatzen ez zaizkien liburuak irakurtzera, autore oso garrantzitsuak direlako. Hobe da, lehenik eta behin, umea irakurtzera zaletzea; zaletu eta irakurtzen dutena ulertzera heltzea. Orduan, bestelako libururik emango

zaio umeari, bai literatura liburua zein testu liburua.

Lehenengo, entretenitzeko liburuak eman behar zaizkie, ikusten joan daitezkeen liburuak imajinazioari eta jakintzari eskaintzen dioten eremu zabala. Azken baten, gusta dakiokkeen liburu bat irakurtzen ez badu, zelan irakurriko du aspertzeko duen zerbait?

«Euskarazko umeendako telebista saio txar batek zerbait aportatzen du: hizkuntza. Estatu mailako txar batek ezer ez»

G. Zelan aukeratu adin bakoitzerako liburuak?

E. Umeak txikiak direnean, ahoz kontatu behar zaizkie ipuinak, ipuin tradizionalak, betikoak, duten hizkuntza ere oso etxekoa delako eta identitatea eskaintzen dizulako. Gero, maitagarrien edo haden ipuinak. Gero, mitologikoak. Azken bi horiek gurasoek irakurtzea komeni da. Horrela, zera irakasten zaie: 'kontakten dizudan eta horrenbeste gustatzen zaizun hori ipuinetan dago'.

Nagusitxoagoak direnean, euren gustua ere kontuan izan behar da. Eta noizean behin, eurekin liburutegira joan gustuko zer duten ikusteko. Hala ere, genero bakoitzak funtzio psikologiko bat betetzen du.

G. Malgua izan behar gara liburuen gaiekin?

E. Bai. Ume batzuei gurasoek telebista jartzen diete gelan, eta zappinga egiten uzten diete, nahi dutena ikus dezaten, egokia izan edo ez umeendako. Baina, alderantziz, liburuen kasuan, oso zorrotzak dira. Ez dut ulertzen. Liburu batek eskaintzen dituen elementuak aproposagoak izango dira beti telebistakoak baino, nahiz eta ez izan egokienak. Izan ere, liburuan ezin zara heldu zure ulermenak eta afektibitateak uzten dizun tokira baino harantzago. Irudietan guztia eginda ematen da, eta askoz eraginkorragoa da.

G. Telebista gehiago ikusten dugu irakurri baino?

E. Bai, gehiegi. Gainera, estatu mailako telebistetan ez da umeendako saiorik egiten. Autonomikoetan ezberdina da. Euskal Herrian, esaterako, euskarazko saio txar batek egiten du ekarpenik: hizkuntza. Baina, estatu mailako telebista bateko saio txar batek, ezer ez.

Seminarioko elizan auditoriuma egiteko proiektua esleitu da

Iñaki Aspiazu arkitektoari esleitu diote 22 milioi pezetatan

Errege seminarioko elizan auditoriuma egiteko asmoa aurrera doa. Asteleheneko osoko bilkuran adjudikatu zuten alderdi politikoez proiektua. Aspiazu arkitektoak eliza zaharra jarduera musikaletarako gune bihurtzeko azterketa egin beharko du.



Seminarioko eliza oraindik ere estatuarena da.

BENITO CANTERO

Errege seminarioko eraikinean jarduera musikalen zentroa egokitzeko proiektua Iñaki Aspiazu Iza arkitektoari esleitzea onartu zen astelehenean, urtarrilak 29, egindako osokoen bilkuran, EAJ-EA, EH eta PSE-EE alderdien oniritziarekin. 22.315.776 pezetan adjudikatu zaio proiektua, zuzenean, hau da, lehiaketa publikora atera gabe. EHko ordezkariak esleipen zuzena egiteko arrazoia galdetu zioten Victoriano Gallastegi alkateari. Alkateak esandakoaren arabera, Aspiazuk San Martin plaza inguruko hainbat obra garrantzitsu zuzendu ditu, udalaren zaharberritzea, esaterako. Hori horrela izanik, eta Errege seminarioa plazan kokatuta egonik, irizpide

bateratuak izateko helburuarekin esleitu zaio lana aipatutako arkitekto horri.

Seminarioaren jabetzari dagokionez, oraindik ere estatuarena da, nahiz eta udalak harremanetan

diharduen Seminarioa eskuratzeko, Victoriano Gallastegiren esanetan.

ANTENAK UGARITZEN

Erregu eta galderen atalean hainbat gairen inguru-

ko galderak egin zizkieten EHko kideek alkateari. Hainbaten artean, mendi-tan ugaritzen ari diren telefonía mugikorrerako antenen gainean. Gallastegi alkatearen arabera, LKS enpresa ordenantza bat prestatzen dabil antenen gaia arautzeko. Gaineratu zuenez, astelehenean bertan batzarra izan zuten mankomunitatean udalek, LKSk teknika-riek eta hainbat telefonía enpresak, eta antenak jartzeko oinarriak nahiko finkatuta daude. Laster, araudi berria indarrean jarriko da eta Debagoieneko herri guztietan aplikatuko da.

GORLAKO KANTINA

Gorlako kantina zaharren inguruko galdera ere egin zion Jesus Mari Garitano EHko zinegotziak alkateari. Alkatearen arabera, jabeek kantina botatzea adosteko azkeneko eskaintza egin diete. Erantzunik ez badute ematen, udalak berak hartuko du kantina botatzeko erabakia. Izan ere, kantina zaharraren jarduera arautu gabe dago, eta honezkero botata egon behar zuen.

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65



BANKINTER

%4,95 etik aurrera lehen 3 urteetan


Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren*

*Irekiera komisioa: %0,25.
35 urte bitartearaino

Igerilekuetako lanek hiru urterako bermea dute

Joan zen astelehenean, urtarrilak 29, egindako osoko bilkuran udal igerilekuak konpontzeko gastu proposamena onartu zuten EAJ-EA, EH eta PSOE-EE alderdiek. Gastua 2,5 milioi pezetakoa da.

Labein enpresa arduratu da igerilekuen egoera aztertzeaz. Enpresa horren araber, udal igerilekuen egitura eta instalazioen funtzionamendua datozen hiru urteetarako berma daitezke, honako obra hauek eginez gero: berogailu sistemaren errematxatu guztia aldatu, sabai faltsuaren azpitik segurtasun eta babeserako sarea jarri, estalkiaren zertxak aldatu eta igerilekuen ertzak eskoratu.



Zertxek eta eskoramenduak irekitze data atzeratu du.

ARTXIBOA

2,5 milioi pezetako gastuan zertxak eta eskoramendua aurrez ikusi barik daude; gastu hori oraindik onartzeko dago. Bestalde, azken bi lan horiek direla eta, igerilekuak pentsatuta-

koa baino denbora luzeagotan egongo dira itxita. Hala ere, Arrasate, Oñati, Eibar eta Aretxabaletako igerilekuak erabiltzeko aukera egongo da lanak bukatzen dituzten bitartean.

Fatxadak zaharberritzeko araudia aldatu du udalak

Arrazoa da indarrean dagoen araudi horrek ez duela zaharberritze behar guztietara heltzeko aukerarik ematen. Izan ere, fatxadetako elementu artistiko bitxi eta balio handikoak berritzeko laguntza txikia jasotzen dute ofizialki mo-

numentu izendatuta ez dauden eraikuntzek, batez ere. Trinidadeko komentuaren fatxadako armarrria, kasu. Ondorioz, asteleheneko osoko bilkuran ordenantza aldatzea onartu zuten.

Aurrerantzean, udalak berak erabakiko du, beti ere

kasuan kasuko txosten teknikoaren izanda, zein lan mota egin. Horrez gain, lan hori egiteko zer diru laguntza emango den, eta elementuen zaintze eta mantentze-lanetarako jabeek hartu beharko dituzten neurriak erabakiko ditu udalak.

Errege bezperako pintaketak salatu ditu udalak

Udaleko gobernu batzordeak, BERRIGARAKO erredakziora bidalitako ohar baten bidez, gaitzetsi egin ditu Errege bezperan herriko hainbat kaletan egindako pintaketak. Bestalde, pintaketak kentzea 350.000 pezeta kostatu dela jakinarazi nahi die herritar guztiei.

El Salvadorrerako diru laguntzak bideratu ditu udalak

Udalak 2.000.000 pezetako diru laguntza bideratu du El Salvadorrerako, han gertatutako lurrikarak sortu dituen kalteei aurre egiteko asmoz. El Salvadorrera bideratzeko diru laguntza eskaera asko jaso ditu udalak. Hala eta guztiz ere, aipatutako kopuru hori Oscar Romero Solidaritza Batzordea gobernuaren kanpoko erakundearen bidez bideratzea erabaki dute udaleko arduradunek. Arrazoa da aurrez ere udalak diru laguntzak eman dizkiola Oscar Romero batzordeari, eta, ondorioz, ezaguna dela.

LAKET
gizon & emakume
Barrenkalea 35 BERGARA

Agirrebeña
94787788
Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

Auto eta oinezkoen guneak bereiztuko dira Espoloian

Udalak aparkalekuak markatuko ditu Espoloian, auto eta oinezkoendako guneak ondo bereizteko. Gunea, izatez, oinezkoendako bada ere, hainbat lagunek autoa arbolapean lagatzen dute. Hori ekiditeko, zuhaitz-gunea eta Mintegi kale artean dagoen errepide zaharrean aparkalekuak markatuko dituzte. Pibote batzuk ere jarriko dituzte.

Gune berri horretan autoak ilaran laga beharko dira, eta sarrera Mintegi kaleetik egingo da. Sarrera erosoagoa egiteko, Mintegi eta Espoloiaren artean dagoen aldapako aparkalekuak aldatuko dira. Gaur egun, zeharka aparkatzen dira auto-



Auto eta oinezkoendako guneak ondo bereiztu nahi ditu udalak.

ak. Aurrerantzean, ilaran, aldatatik Espoloirako bidea errazteko.

Bestalde, irteera Urteaga kaletik egingo da. Gaur egun, itxita dago irteera ho-

ri, baina aparkatzeko tokiak markatzen diren unetik aurrera zabaldu egingo da. Lanok noiz egingo dituzten zehaztu barik dago. Udaberri aldera izango da.

Mayc-eko langileak metalaren grebari atxikitu zaizkio


Mayc-eko langileak greba egitekoak ziren gaur, eguakitzan, Gipuzkoako metal sektoreak deitutako deialdiari erantzunez. 12:00etan manifestazioa egitekoak ziren. Langileek eguaztenean egindako batzarrean, bozketa egin zuten, greba egin edo ez erabakitzeko. 349 langilek eman zuten botoa: 241ek, baiezkoa; 90ek, ezezkoa eta bestelakoak 18 izan ziren. Gipuzkoako metalaren hitzarmenaren negoziazioek dirauten artean, Mayc-eko langileek eten egin dituzte euren lantegi barruko mobilizazioak, aurrerago berriro ekiteko.

ATEAK ZABALIK

Otsailak 3an,
4:30etik 7:30era

EGITARUAU	Tailerrak
Erakusketak	Maskarak
Jokuak	Bideoak
Dantzak	Informatika
Antzerkiak	Pailasoak

Zuen zain gaude!



Auzoetako eskolak ezagutzeko aukera: Martoko, Zabalotegi eta Osintxu
Otsailaren 6an, 4:30etik 6:30era.



SAN MARTIN AGIRRE

herri ikastetxea

Boni Laskurain, 25
Telefona: 943 76 21 47

Berrigara

438 zenbakia.
2001eko otsailaren 2a.

Irizar jauregia, Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi,
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetza: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak: Sergio Azkarate.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,
M. Angel Elkorobereizbar, Alex Labaien,
Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega,
Usao Mendikute, Gorka Ortega &
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre,
Antxon Agirre Sorondo,
Juan Martin Elexpuru, Gorka Ugalde.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk.
(Zubillaga. Dñati).

Azaleko irudia: Berrigara.

Tirada: 5.400 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntzaz:



atrebentzia ezpada

Ertzainak Aste Santurako polizia etxe berrira jungo dira. Orain dauden eraikina zertarako erabili biharko litzake?



Julian Lizarralde

Kultura etxe bat formala badago Bergaran? Nik uste dot egokixa dala Kultura Etxe bat egitteko: liburute-gixa, musika eskolia...



Pili San Emeterio

Ez dakit zertarako, baina gauza askotarako izan leike egokixa.



Luis Mari Gallastegi

Gauza askotarako: Kultura Etxe bat egitteko, Musika Eskola berrixa egitteko...



Maite Dos Santos

Gaztiendako toki bat egitteko. Ez gaztetxia; gaztiak batu eta gaztiendako hainbat jarduera egitteko tokixa.



Jon Gimbert


Jolastoki bat eta gaztiak egoteko lokala izatia nahiko neuke.



Rosa Irizar

Adibidez, Kultura Etxe bezela, gaztiendako topagune bezela. Liburute-gixa be txiki geratu da eta toki egokixa izango litzake.

tira biraka bittor rodriguez



adituen esanetan

Homo-hetero paradigma

Duela gutxi arte, 70eko hamarkada arte, hain zuzen ere, gaixotasun bezala hartzen zen homosexualitatea. Orain, berriz, hori dagoeneko gaindituta, denok "toleratzeko" dugu homosexualitatea. Gaur egun, hortaz, badaude harreman heterosexualak eta homosexualak, denak "toleratuta". Hala ere, ezarrita dagoen sistema heterosexuala da; hau da, ez dago erreferentzia homosexualik, liburuetako, filmetako eta ilustrazioetako erreferentzia guztiak heterosexualak dira eta.

Ikerketak ere homosexualitatearen inguruan egiten dira, ez heterosexualitatearen gainean. Heterosexualitatearen gaineko ikerketak egingo balira, emaitzek homosexualitatea argitzen lagunduko lukete, txanpon beraren bi aurpegi dira eta. Tendentziak eta sexualitatea ikertu nahi izanez gero, paradigma guztian oinarritu behar da, eta ez homosexualitatean edo heterosexualitatean bakarrik. Kinseyk egin zuen ikerketaren arabera, homo-hetero para-



ANA OIARZUN

Sexalagoa

«Ez dago ehuneko ehuneko heterosexuala den pertsonarik; ez eta ehuneko ehuneko homosexuala denik ere»

digma baten maila ezberdinean kokatzen gara gizaki guztiok. Horrela, ez dago ehuneko ehuneko heterosexuala den pertsonarik, ez eta ehuneko ehuneko homosexuala den pertsonarik ere, nahiz eta beti, lehenetsunez, homo edo hetero garen. Batzuek desioak homosexualagoak ditugu eta beste batzuek, berriz, heterosexualagoak. Hortaz, aztertzekotan, horren zergatiak aztertu beharko lirake. Faktore askok eragiten du: alderdi biologikoak garrantzi handia du: hormonak, kromosomak, faktore fisiologikoak. Baina, baita gizarteko alderdiek ere, gure bizipenek, izan ditugun aukera ezberdinek... Azken baten, biografia osoak.

Harreman homosexualak (eta baita ezinduen artekoak eta adin tarte handia dutenen artekoak ere: ezarritakotik kanpo dagoen guztia) gizartean baztertua egoteko arrazoia honakoa da: izaten diren harreman heterosexualak, askotan, erreproduktzioa bakarrik bideratuta egoten dira.

kaleen izenak



1961. urte inguruko argazkia.

Irizar pasealekua

Irizar pasealekua Barrenkaletik Santa Marinaraino doan kalea da. Agertzen diren lehenengo datuak 1854ko eta 1855eko planoak dira. Plano horietan aurretik zegoen bideari Santa Marina bidea deitzen zaió. Plano horiek bidea zabaltzeko eta zuzentzeko egin ziren. Baliteke bide hau konpontzeko arrazoietako bat kanposantu berria Matxiategin egin zela izatea; hortaz, hildakoak San Pedrotik kanposantura eramateko Artekaletik joan, kantoia hartu eta gero zuzen joateko. Badakigunez, pasealekuan (Komenio kalean bezala) zuhaitzak zeuden eta 1914an, luzeegiak daudela eta, kimatzea erabaki zen. Geroago, 1916an, Santa Marina pasealekua eta Lizarretakoa pasealekua erabiltzen dira. Horrela agertzen da, behintzat, 1916an egindako obra eskaera baten; espedienteak dioenez, Gasparren segidan petril bat zegoen eta alpagata egileak lanerako erabiltzen zuten *rueda* ere bai eta 1919an kendu egin zituzten. Zera jartzen du: 'la casa horno llamada Lizarretakoa'.


Geroago, 1922ko urtarrilaren 30ean egindako udal batzarrean, Pedro de Yrizar izena jartzea erabaki zuten, jaun honek herriari egindako zerbitzua eskertzeko. Yrizar jauregiko jabea izan zen eta Amalia Palacioekin ezkondu zen. Euren alaba, Ana, Eladio Urdangarinek ezkondu zen. Gaur egun ere Irizar pasealekua da.

1976an eta 77an Irizar kaleko eskumaldean etxe berri batzuk egin ziren eta Simon Arrieta plaza berria egin zen; lehenengo, lorategiak jarri ziren, eta gero, lorez bete zen eta gaur egun dagoen iturria eta Simon Arrietaren eskultura ipini zituzten.

Testua: Arantzazu Oregi, Udal artxibozaina.

Argazkia: BUAk utzia (Jesusa Igarzabal Guridi).

Egilea, Jauja.



Batzuek desioak heterosexualagoak ditugu, eta, beste batzuek homosexualagoak.

Ikasleen jaia

Egun handia izaten da ikasleendako **San Juan Bosco eta Santo Tomas eguna**. Eta zer esanik ez, Bergarako ikasleendako. Urtero bezala, **Ipintza eta Miguel Altuna** institutuetakoko ikasleek jaialdiak antolatu zituzten joan zen eguakitzean. Ikasgela bakoitzak bere ikuskizuna antolatu zuen: antzerkia, karaokea...denetarik egin zuten ikasleek. Eta gero, kalera, koadrila edo ikaskide taldeak elkartu, bazkaldu eta parrandara!



MIKEL FRAILE

Ane Bilbaorendako saria

Ane Bilbao (argazkian, eskuma-eskuman) elgetarrak ingurumeneko **Azertu programako lehen saria** irabazi du, argazkigintza atalean. Sari banaketa Donostiako Aquariumean egin zen joan zen egubakoitzean. Ane Ipintza institutuko DBHko ikaslea da. Zorionak, Ane!

M mooby

Kruz Gallastegi 943 76 54 48

Dena

%50 ean

kontuola...

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias, Ainhoa Ugarteburu **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lereni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 72. zenbakia: 2001eko otsailaren 2a.

Hasi dira frontoi osteko lanak


Lurjausien arriskua zegoela-eta eten egin ziren lanak

Anbulatorio parean errepidearen beste alderaino doan zubiak arazoak emango zituela-eta, medikuarengana joateko aldapa egiteko lanak eten egin zituen Antzuolako Udalak. Orain dela hilabete batzuk izan zen hori.

Dirudienez, medikuanetik kanposanturaino doan zubiak errepidearen beste aldeko mendiska eta hilerria bera ere eusten ditu. Horixe adierazi zuten geoteknikoek Antzuolako Udalak lanak hasi zituenean. Horren aurrean, udalak lan horiek laga eta beste alde baten jarraitzea erabaki zuen konponketa lanekin. Horrela ez luke guztia bertan behera utziko. Eskabadorak erabili beharra zegoen zubia dagoen lekuan ambulatiorako beste bidea egiteko. Horrek, ordea, mendia behera etortzea ekar zezakeela baieztatu zuten geoteknikoek.

Dena dela, arazoa errepideko hormaren estabilitatean dago, kanposanturaren inguruan. Horma hori Diputazioaren ardurakoa da eta horregatik eskatu zuen udalak ikerketa geoteknikoa. Geologoek azaldu dute, ofizialki ez bada ere, hormari eusteko neurriak hartu behar direla.

Aldi berean, frontoi osteko lanak egin daitezkeela azaldu dute beharrezko neurriak hartuz gero, jakina. Eta horren aurrean, udalak hasi ditu dagoeneko egin beharreko konponketak. Gogoratu duzue, ambulatiorako bide berria ADU-30 deritzan proiektuaren barruan dago, eta proiektu horrek Antigua auzoan dagoen Balzers-Seytra enpresatik ambulatiorainoko zatia hartzen du. Tartean, oraintxe egin dituzten etxe berriak eta herriko erdial-



Errepide ondoko horma eutsi egin beharko da lurjausia baitu.

deko trafikoa arintzeko egingo den beste kalea.

ONDORIOAK

Lanak egiten diren bitartean ambulatiorako beste bide bat zabaldu dute pilotaleku txikitik. Derrigorrez autoz joan beharra dutenek bidea zabalitzeko baimena eskatu beharko dute udaletxean, lanegatik itxita baitago. Horrekin batera, kanposanturako bidea ere aldatu egin da. Hemendik aurrera, Frontoi Bidetik


hartu beharko da zubirako bidea. Bide hori behin-behinekoz jarri dute, baina lanak luzerako izango direnez, bidea ere konpondu egingo da.

URBANIZAZIOA PREST

Bestalde, aurreko Kontuolan azaldu genizuen etxe berrien urbanizazioa egin gabe zegoela, etxeak amaituta egon arren. Joan zen astean hasi dituzte urbanizazioa txukuntzeko lanak eta dagoeneko harlosak ere jarri dituzte lurrean. ■




Kanposantura igotzeko zubirako bidea Frontoi Bidetik hartu beharko da aurrerantzean



El Salvadorreko egoera aztertzeko hitzaldia egin zen

Anelkar-ek, Antzuolako GKEak (Gobernuz Kanpoko Erakundea), El Salvadorren izandako lurrikara dela-eta, hitzaldia antolatu zuen herrian. Hizlaria beste GKE bateko kidea izan zen: Mila Andueza, Oscar Romero erakundekoa, eta urtetan El Salvadorren lanean dabilen Miguel Andueza domingotar bergararraren arreba. Lurrikaren kontuarekin hasi, eta han egiten ari diren beste zenbait proiektuen berri ere eman zuen: «Nire neba duela urte batzuk hasi zen Bibliak erosteko diru eske, El Salvadorreko jendea oso jende erlijiosoa da-eta, baina urteak aurrera joan ahala, proiektu handiagoetan sartu zen».

Bere nebaren proiektuak indarra hartzen joan ziren. Orduan, 'Etxebizitza, hezkuntza eta osasuna' izeneko plana jarri zuten abian. Horren helbururik nagusia etxebizitzak egitea zen. Baina gaur egun, lurrikararen ondorioz, berriz ere ia-ia hasieratik hasi beharko dute lanean». Kooperante horrek kontaktu zuten arabera, «emergentziatzko laguntza bidali behar den arren, horrek baitu lehentasuna, lana hori baino zabalagoa da. Zentzu horretan, berriz etxeak egiten hasteak dauka lehentasuna, baina aldi baterako etxeak izango dira, bizpahiru urte barru etxe hobeak egin beharko direlako; beraz, lana etengabea izango da hango lurretan».



Mila Amndueza joan den astbean izan zen hitzaldia ematen herrian.

Laguntzak direla eta, hauxe esan zuen hitzaldian: «Neba dagoen lekura ez da, ez gobernuaren, ez GKE handien laguntzarik iritsi. Oso urruti dago eta han, bakarrik, GKE txikiak aritzen dira, horiek hobeto kontrolatzen dutelako non eta zela erabiltzen den heltzen den diru laguntza».

Oraingo proiektuez zera adierazi zuen Anduezak: «eskolak egitea da garrantzitsuena, gaztetxoak alfabetatu egin behar dira-eta. Gobernuak eskoleta-

rako irakasleak jartzen ditu, baina eraikinak, materialak eta behar den guztia komunitateak jarri behar izaten du».

EL SALVADORRERAKO LAGUNTZA-ESKAERA

ANELKAREK kontu korrante bi zabaldu ditu, Miguel Anduezaren bitartez, El Salvadorreko laguntza bidaltzeko: Euskadiko Kutxan 12133 eta Kutxan 10879500. ■

Igor eta Txomin



Margoak orokorrean

ANTZUOLA

BERGARA

609 157 131

609 150 164

■ ■ ■
Laguntza bidaltzeko, Euskadiko Kutxan 12133
eta Kutxan 1087950 kontuak ireki dira



GOROSTI Taberna

☎ 943 76 62 96

Zurrategi plaza ANTZUOLA



Jose Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B. Antzuola

943 76 60 19

943 76 60 43

AITZ-GARBI



taberna
jatetxea

Pintxoak eta kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51

Pilotan ikasteko eskolak pilotalekuan astean birritan

Aurten ere hasi dira pilota eskolak pilotalekuan. Felix Agirre, Jose Mari Mendizabal eta Juan Tomas Erostegi arduratzen dira eskolak emateaz. «Hasi, duela 15 urte hasi ginen; batez ere, mutikoein jolasean ibiltzen ginelako hasi ginen, gustuko genuelako. Gerora konturatu ginen mutikoei erakutsi egin behar zitzaizela eta ardura moduan hartu genuen eskolak ematearena».

25-30 neska-mutiko joaten dira martitzen eta eguenetan pilotan ikastera. Gehienak mutilak dira: «neska gutxi etortzen da pilotan jokatzera. Batzuk hasten dira, baina aspertu egiten dira eta denbora gutxira laga egiten dute». 7-8 urterekin hasten dira herriko neska-mutikoak pilotan eta 18 bat urte izan arte aritzen dira gehienetan hiru irakasle horiekin.

FUTBOLAREKIN LEHIAN

Pilota irakasleek arazo nagusi bat izaten dute pilotari gazteekin: «14 urtera arte denak etortzen dira pilotan egitera, baina edade horretara iritsi eta gero, futbolearen hasten dira gehienak». Horren zergatiaren gainean zera diote: «batez ere, pilota joko indibiduala delako eta baita nahiko sakrifikatua ere; esku handiak behar dira eta entrenatu ere asko entrenatu behar da. Pilotan pixka bat egiteko astean hiru edo lau bider praktikatu beharra dago».

HERRIKO PROMESAK

Oraindik umeak diren arren, honez gero badira Antzuolan ere promesak. Bi bikote aipatu dituzte hiru irakasleek. «Batek, Aitor Mendizabal eta Xabin Muruamendaraz, biak eskola arteko Gipuzkoako txapelkunak; eta, bestetik, Mikel Idia-



25-30 neska-mutiko ari dira pilotan ikasten.

kez eta Ekaitz Olalde, eskualdean garai- le izatea lortu zutenak».

Bestalde, gazte mailan, Josu Agirre eta Xabi Biteri dabilta, baina horien prestatzaile fisikoa Amaia Zabaleta da. Berak aitortu digunez, «elkarren arteko harremana bikoitza da: nik entrenatzen ditut eurak eta, aldi berean, eurak pilotan jolasten erakusten didate niri».


Gazte hauek ere, ondo eta gogo handiz dabilta. «Oraindik azkarregi da ezer esateko. Urte bukaeran egingo dugu balorazioa, izan ere, luzerako lana

egiten ari gara eta horren emaitzak oraindik ikusteko daude».

Dena den, eskuzko pilota ez da lantzen den modalitate bakarra, gazte mailan badira palan ere ondo aritzen diren hainbat antzuolar: Sergio Sanchez, Goetzón Zabalo, Mikel Bargiela eta David Martin dira eurak. Gazte mailako euskal ligan ondo sailkatuta daude eta garaipena lortu dute Gipuzkoako txapelketan.

Pilota eskolak martitzen eta eguen arratsaldetan izaten dira pilotalekuan bertan. ■

■ ■ ■
Martitzen eta eguenetan izaten dira
entrenamenduak pilotalekuan



zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Birgaitzeak • Fatxadak
Teillatuak • Sukalde eta bainu gelak
Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89

Arin
JATETXEA
Euskal
sukaldaritza
Eguneko
menua
Kalebarren 7, ANTZUOLA Tf. 943 78 71 12

**LEKU-BERRI
MERENDEROA**
Janariak eta edariak
Tf. 943 76 60 94

Matilde Ortueta, Basaldeko auzotarra:

«Belaunerainoko edurrakin be etorritta gare gu ermittara»

Bihar, zapatua, Basalde auzokoek festa eguna dute. Urtero moduan, herritarrak San Blas opilak hartuta, izen bereko ermitara joango dira euren opilak bedeinkatu eta mokadutxoak jatera. Aurten, maiordomoak, Egurribai baserrikoak dira. Gu Matilde Ortuetaekin eta ermita garbitu dutenekin egon gara.

Zenbat denbora da festa hau egiten dela?

Geure gurasuek be ospatzen zeben; ermita hau egin zala auskalo zenbat urte dien. Hori bai, lehen negua gogorragua izaten zan eta eguraldi txarragua egitten zeban. Gu etorritta gare belaunerainoko edurrakin be San Blas egunian.

Zenbat familiak parte hartzen duzue antolaketan?

Gutxi gorabehera, hamahiru bat familixan artian; lehen gehixago giñan, Juan Joxenekuak eta Eraztazuak be horretan ibiltzen zien, baiña gaur egun hamahiru bat familixan artian egitten dogu.

Zer da maiordomotza?

Kargua bi urterako izeten da. Mezia enkargau eta antolatu, aberixaren bat baldin badago ikusi eta konpondu. Saldia egittia be geuri tokatzen jaku, baiña horretan Altzetatuak be ibiltzen die, eta Aitzabazaldekuak txorixua egitten dabe. Gaiñera, aurreko zapatuan, ermittia eta inguruak danon artian garbitzen dittugu.

Etxean egiten duzue ospakizun berezirik?



Bihar egingo da, urtero legez, opilen bedeinkazioa San Blaseko ermitan.

Bai; gehixenok gonbidautzia egitten dogu, etxeko senidiak elkartu eta bazkaldu egitten da. Bazkarixa berezixa izaten da; lehen oillua hiltzen zan, paella goxo bat egitteko; oillua saltsan eta postrerako aurreko egunian egindako guriña izeten zien normalian.

Urtean zehar egiten al duzue auzo-

tarrek beste festaren bat?

Udan, zapatu baten, auzotar danak eta auzuan jaixotakuak bazkari bat egitten dogu ermitta barruan. Egun ederra izaten da, erromerixa eta guzti. Bazkari hau egitten hasi giñala izango die bost bat urte, baiña bi urtian ez da egin eta hiru aldiz ospatu dogu. ■

■ ■ ■
Bazkarixa berezixa izaten da; lehen oillua hiltzen zan, paella goxo bat egitteko
■ ■ ■



**MUEBLES
IGEA**

Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Arregi aroztegiko bazkidieta bat da lñaki, eta iaz erretirau zan arte, delineante ibilli da. Oraindik be jarraitzen dau taillerera juaten, semiari laguntzera. lñakik 66 urte dauzka, ezkondata dago eta lau seme dauzka.

Nun ikasi ziñuan lanbidia?

Hamazazpi urtekin hasi nintzan hemen, aitta hil zanian. Baiña, ni beti ibilli naiz delineante, ez arotz.

Zenbat urte dauzka taillerak?

Ba, egixa esan, ez dakit; nere aittittak jarri zeban.

Seme-alabek jarraitu dabe?

Bai, nere semia hemen dabil lanian.

Iaz erretirau ziñan. Zelan bizimodu barrixan?

Oso ondo. Erretirau arren, egunero egitten dot tailleretik bueltatxo bat semiari lagun-zeko, eskua hartu arte.

Txikittan zer izan nahi ziñuan?

Ez dakit; uste dot ez neukala ezer buruan.

Denpora librian, zer egittia gustatzen jatzu?

Mendira juatia. Neguan *Kilometrotako* bueltia egitten dogu. Udan Urbixara juateko ohituria daukagu.

Kirolzalia zara?

Bai; gaztetan futbolarixa izandakua naiz, gaiñera.

Ze kirol gustatzen jatzu gehixen?

Futbola, ziklismua, pelotia.

Realak be, azkenian irabazi dau...

Bai, poztekoa da. Realzalia naiz, baiña ez forofua. Ez naiz Athleticicek galtzen dabenian pozten diran horretarikua.

Zure bertute bat?

Ez dakit, ba, zer esan; normala naiz, beste barik.

Iñaki Arregi

Eta defektu bat?

Geroago eta zaharragua naiz, eta orduan eta jenixo txarragua daukat.

Nahikua diru eduki ezkeru, zer egingo ziñuke?

Bidaia gehixago.

Nora egingo ziñuke bidaia bat?

Mexikora; han senitartekuak dauzkagu eta gustora juango nintzake; Kubara be bai.

Janaririk gustokuena?

Arraina; zapua, adibidez.

Eta edari bat?

Ardaua; baiña, ardau ona, e!

Urtarorik gustokuena?

Udabarrixa.

Egunkarixa, irratixa ala telebisiñua?

Hirurak pixka bat.

Egunkarixan zer da lehenengo irakurtzen dozuna?

Begarako kartia.

Telebisiñuan, saiorik gustokuena?

Kirolak; pelota eta futbol partiduak.

Bizitzeko toki bat?

Bergara.

Euskal Herriko tokirik polittena?

Asko daude; Donostia, esaterako.

Eta bukatzeko, amets bat?

Orain arte moduan jarraitzia, eta osasunak

laguntzen badau, konformatzen naiz.



Bolu
liburutegia

Enmarkazioak
Ispiluak neurrira
Zurezko artikulua
Begarako oleo eta
lumaxoak

Koldo Eleizalde 1, behea
Tf. 943 76 70 60

anezka
lentzeria-mertzeria

%20 Otsailean
ko beherapenak

Calvin Klein Gemma
Belcor INTIMA CHERRY

eta beste marka batzuk...

Espoloia, 8. 943 76 59 25

MIZPILDI

OKINDEGIA

Matxiategi 1
943 76 72 73

Mizpildi 8
943 76 12 32

Alzheimerra

Bergaran, hamabostero elkartzen dira senitartekoak

Duela zazpi bat urte hasi ziren elkartzen alzheimer gaixotasuna dutenen Bergarako hainbat senitarteko. Ez da gozoa horrelako gaixo bat etxean edukitzea, eta familiakoei asko laguntzen die egoera beretsuan dagoen jendearekin egoteak.



Hilean bi bider Kultura Etxean dute hitzordua. Dozenerdi bat lagun elkartzen dira, eta baita AFAGI (alzheimerra dutenen Gipuzkoako senitartekoen elkar-tea) elkarteko gizarte laguntzaile bat ere. Denak dira emakumeak. Izan ere, etxekoandreak izaten dira, kasu gehienetan, gaixoa zaintzeaz arduratzen direnak.

Bakoitzak berarekin eramaten ditu bere arazoak, kezkak, zalantzak, tristorak edo angustia. Arazo horiek kon-

pontzeko bideak aurkitu, zalantzak argitu edo angustia arintzeko lagungarri zaizkie biler horiek. AFAGIko kide Rosarito Okinak esaten duenez, «egoera beretsuan dagoen jendearekin egon eta bata besteari laguntzeko aukera eskaintzen zaigu; terapia oso ona da senitartekoondako».

Hala ere, jende asko dago, etxean alzheimer gaixoa izan arren, joaten ez dena. Isabel Zabalo AFAGIko beste kide baten esanetan, «jende horri guztiari esango genioke animatzeko, etortzeko». Talde honetako kide guztiak AFA-

Giko kide dira, era berean. Gipuzkoako elkarte honek senitartekoei laguntzea du helburu: aholkatu, baliabideak, ikastaroak eskaini, zerbitzuak...

SINTOMEKIN ARGI

Hasieran, memoria galtzea, konfusioa, orientazio eza eta gisako sintomak besterik ez dira agertzen. Horregatik, sarritan, adinari egozten zaizkio hauek guztiak. Adituek, hala ere, gaixotasuna garaiz antzemateak duen garrantzia azpimarratzen dute behin eta berriz. Izan ere, nahiz eta gaixotasuna, oraingoz,

**PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!**

EUXEBIO II

Irala z/g ☎ 943 76 07 92

 **DEBA
GARAIA**
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefona Aranzadi, 2-behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

**Etxebizitza berriak
Antzuola erdialdean**

- Aparteko lekuan eta ingururik ederrenera begira
- Primerako materialekin jasoak

Usoa Pub



☎ 943 76 38 57
Irala 1

sendaezina izan, hasieratik tratamendu egoki bat ezarri gero, gaixotasunaren prozesua astirotu egiten da. Isabelek ere garrantzi handia ematen dio alderdi honi. Bere esanetan, «medikuek kontu handia izan beharko lukete, eta ahal bezain pronto diagnostikatu; uste dut sufrimendu handia ekiditu daitekeela». Senitartekoez ere badute zeresanik horretan, sintomak antzeman eta behar haren joan behar da-eta medikua-riengana.

EGUNEAN, 24 ORDU

Gogorra da benetan etxean horrelako gaixo bat edukitzea. Rosaritoren hitzetan, «jota geratzen zara». Gainera, urte askotako prozesua izaten da, eta urte horietan guztietan eguneko hogeita lau orduetan gaixoarekin egon behar du norbaitek. «Den-dena egin behar zaio, eta, gainera, badaezpada ere, bere gainean egon behar zara etengabe», dio Rosaritok. Isabelen esanetan, «bizi egin behar da egoera hau ulertu eta arazoaz jabetzeko».

Egoera honetan dauden familiendako, hala ere, badago laguntzarik. Bai udalak eta bai Diputazioak ere ematen dituzte laguntzak. Udalak, besteak beste, Eguneko Zentroa ireki zuen duela urte gutxi, eta alzheimer gaixotasuna dutenek ere badute hara joateko aukerarik. Mizpirualde egoitzan ere badaude alzheimerre dutenak. Bestalde, urtean behin hilabete batez gaixoa egoitza batera eramateko aukera eskaintzen die Diputazioak.

EGUNEKO ZENTROA, AUKERA BAT

Bergarako Udalak duela hiru urte eta erdi ireki zuen Eguneko Zentroa. San Joxepe elkartearen dago, beheko solairuan. Hantxe hamar pertsonarendako tokia dago. Ezintasun fisiko zein psikikoa duten adinduendako zentroa da. Batzuek alzheimerre dute, baina badira beste ezintasunen bat dutenak ere. Goizeko hamarretatik arratsaldeko 6ak arte egoten dira hantxe. Senitartekoen dako laguntza handia da; izan ere, zor-

tzi ordu egiten dituzte zentroan, eta gainera, lasaigarria da ondo zainduta egongo direla jakitea. Memoria lantzeko ariketa asko egiten dute. Adibidez, errealitatera hurbiltzekoak: ze egunetan, ze hilabetetan bizi garen, nortzuk diren eurak eta ingurukoak, zenbat seme-alaba dituzten, non dauden, non bizi diren... Rosaritok esaten duenez, «hasieran kosta egiten zaizu zure ama edo aita hara eramatea, baina merezi du».<

Egoera berean dagoen jendearekin egon eta bata besteari laguntzeko aukera eskaintzen dute bilerek



Duela hiru urte ireki zuen Udalak Eguneko Zentroa San Joxepen. ARTXIBOA

OILAGORRA TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate, 1. 943 76 02 57

ANTIA


HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

POL-POL Taberna

943 76 07 78



Sukaldeko altzarien eta horma-armairuen fabrika

Super
Armeko

- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

Kataide poligonoa, 6. pabilioia.
ARRASATE. 943 71 25 08


Bergarako pilotariak Deba Arroko txapelketan buru-belarri

Antzuolaren aurka jokatu zuten martitzenean

Bergara Kirol Elkarteke pilotariak Deba arroko txapelketa jokatzeko hasi ziren aurreko astean, Aretxabaletan. Martitzenean, Antzuolako Olalde taldearen aurka aritu ziren kadete eta jubenil mailan, Bergaran. Kadetetan, bergararrak nagusitu ziren eta jubeniletan, ostera, Antzuolako bikoteak irabazi zuen.

Kadetetan, Asier Larrañaga eta Josu Agirrezabal bikote bergararrak 22-19 emaitzarekin irabazi zien Ekaitz Olalde eta Imanol Pastroiaren antzuolarrei. Hala ere, mahoneroek uste baino arazo gehiago izan zituzten irabazteko. 17-10 izan ziren aurretik, baina antzuolarrek partidua berdintzea lortu zuten. Azkenean, Reyes Azkoitia entrenatutako mutilek ligaxkako lehen partidua irabazi zuten. Aurreko astean, Aretxabaletan, 22-13 galdu zuten hango bikotearen aurka.

Jubenilek ere lehen jardunaldian galdu egin zuten Aretxabaletan (22-20). Martitzenean Julen Aranburuk eta Joseba Herranek partidua txarra jokatu zuten eta 22-15



Antzuolako eta Bergarako kadete mailako bikoteak partidu atarian.

galdu zuten Josu Agirre eta Xabier Biteri antzuolarren aurka. Senior mailako partidurik ez zen jokatu maila horretan, Olalde taldeak bikoterik ez duelako. Bergarako seniorrek 12-22 irabazi zuten aurreko astean Aretxabaletan.

BI MULTZO

Deba arroko txapelketa bi multzotan banatzen da: alde batetik, Debagoieneko taldeak ari dira, eta bestetik, Debabarrenekoak. Debagoieneko ligaxkan Arrasate, Aloña Mendi, Aretxabaleta, Eskoriatza, Olalde (Antzuola) eta Bergarako taldeek jo-

katuko dute elkarren aurka. Txapelketa ligaxka eran jokatu da, eta joaneko eta itzuliko partidua izango dira. Kategoria bakoitzean, bi bikoterik onenak sailkatuko

Txapelketa ligaxka eran jokatu da eta kategoria bakoitzeko bi bikoterik onenak sailkatuko dira

dira eta finalerdietan Deba-barreneko ligaxkan sailkatutakoen kontra jokatu dute. Finalerdiak apirilaren 3an eta 10ean jokatu dira, eta finalak apirilaren 29an, Antzuolan.

BI MULTZO

Honako hauek dira Bergarako pilotariak, kategoriak: kadetetan Asier Larrañaga, Josu Agirrezabal, Urdin Alberdi, Oihan Aranberri, Ibai Altuna, Mikel Salegi eta Julen Muguruza; jubeniletan, Julen Aranburu, Joseba Herran, Beñat Inarra, Igor Apraiz, Ander Gabilondo eta Joseba Orgaz izango dira Bergarako ordezkariak; eta, azkenik, seniorretan, Ander Muguruza, Eduardo Samaniego, Igor Gutierrez, Ibai Redondo eta Iker Zabaleta. Datorren martitzenean Bergarak Aloña Mendiren aurka jokatu du, Udal Pilotalekuan, 19:30ean.

Reyes Azkoitia entrena-tzailearen arabera, «kadete mailan esku hartuko duten bikoteak ez ditut ezagutzen eta, beharbada, jubeniletan eta seniorretan izango dugu aurrera egiteko aukera gehien. Hala ere, lehiakortasun handia izango da».



☎ 943 76 20 61

MUJIKA UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA

**BEHEKO
TABERNA**

**Menestra eta konejoo
dira gure berezitasunak**

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74

Tenis txapelketa hilaren 17tik aurrera kiroldegian

Debagoieneko kirol zirkuituaren barruan, tenis txapelketa jokatu da otsailaren 17tik apirilaren 29ra bitartean. Txapelketa 14 urtetik gorako tenis-zale guztiei zuzenduta dago eta izen-ematea otsailaren 14a arte dago zabalik. Debagoieneko kirol zerbitzueta-ko bazkideek 1.500 pezeta ordaindu beharko dute eta gainerakoek, 2.000 pezeta. Partiduak hiru setera jokatu-ko dira Labegaraietako tenis pistan. Partaide kopuruaren arabera, bi edo hiru multzo osatu-ko dira, eta lehen fasea jokatu ondoren, multzo bakoitzeko lehen laurak sailkatuko dira hurrengo fase-erako. Hortik aurrera, final-laurdenak, finalerdiak eta finala jokatu-ko dira.

DEBAGOIENENKO ZIRKUITUA

Sailkapenean puntu berdinketa izanez gero, inplikatu-ten arteko emaitza hartuko da kontuan. Aurrez ez abisatu-ko gero, jokalaria bat par-



Jorge Aranesek (ezkerrean) irabazi zuen iaz Bergaran jokatu-ko txapelketa.

tidu batera agertzen ez bada, txapelketatik kanporatu izango da. Esan bezala, txapelketa Debagoieneko zirkuiturako puntuagarria izango da. Txapeldunak 12 puntu eskuratuko ditu; bigarrenak, 10 puntu; hirugarrenak, 9 puntu; eta laugarrenak, 8 puntu. Final-laurdeneterako sailkatzen direnek seina puntu lortuko di-

tuzte, eta gainerako partaideek, hiru puntu. Joan zen urteko txapelketan 16 lagun izan ziren lehian, eta Jorge Aranes bergararrak irabazi zuen. Aurtengoa, iaz inaurratutako tenis pista berrian jokatu-ko den bigarren txapelketa izango da. Argibideak Kirol Zerbitzuan (943 77 91 67 zenbakian) jasoa daitezke.

karteldegia

FUTBOLA

Bergara-Añorga

Ohorezko mailako kadeteak

Zapatua. 11:00. Ipintza

Bergara-Urki

Neskak

Zapatua. 16:00. Ipintza

Bergara-Amaikak Bat

Infantilak

Zapatua. 17:45. Ipintza

ESKUBALOA

Bergara-Tolosa

Kadete mutilak

Zapatua. 16:15. Kiroldegia

Bergara-Elgoibar

Senior mutilak

Zapatua. 17:45. Kiroldegia

Bergara-Loiola

Jubenil mutilak

Domeka. 11:00. Kiroldegia

SASKIBALOA

Bergara-Easo

Kadete mutilak

Zapatua. 12:00. Kiroldegia

PILOTA

EUSKAL LIGA

Bergara-Pilotajauku

Jubenilak banaka

UDABERRIKO TXAPELKETA

Bergara-Arrasateko

2. mailako jubenilak

Bergara-Beasain

Lehen mailako jubenilak

Bergara-Oiartzun

2. mailako seniorrak

Gaur, eguakitzan, Udak Pilotalekuan,

19:30ean. Aurretik Eskola kirolako

anaiarteko partidu bat jokatu-ko da

DEBA ARROKO TXAPELKETA

Bergara-Oñati

Martitzenean, hilak 6,

Udal Pilotalekuan, 19:30ean.

OHARRA BEZEROEI:



Ramon Maria Liliko

bulegoan arazo teknikoak

ditugunez, aldi baterako

bulegoa BELANBIDE KALEAN

izango dugu. Ongi etorri, denok.



Ur~bide

I T U R G I N T Z A

Zubieta, 28-behea

BERGARA

943 76 00 57

630 261 617

AGENTEA

Telefonoak: 943 76 23 30

eta 943 76 41 54

Faxa: 943 76 41 54

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera:

9.00-14.00 eta 16.00-20.00



IRAEGI
ASEGURUAK



Labegaraietako futbito txapelketa

EMAITZAK

A MULTZOA

Fac-Apa Oxemai	5-2
Errotagain-Canalejas	9-2
Amoskibar-Bar Ugarte	4-8
Torrekua-Pagomendi	2-5
Eri-Bildurbarek	4-5

B MULTZOA

Cine Bank Irimo-Amilotx	2-4
Vacalouras-Aterpe	1-10
Bayer-Etengabe	5-1
Kanpazar-Agirrebeña	9-1
Aluminios Kresala-Pint.Bergara	3-2

C MULTZOA

Ezinleike-Artusamak	3-14
Latex-A Ze Flaxa	7-15
Patxaran Team-Txipiron	4-5
Shaktale-Guadalest	1-7

PARTIDUAK

ZAPATUAN, KANPOAN

10:30: Bar Ugarte-Buya	Cine Bank
11:30: Aterpe-Cine Bank Irimo	Mongatxurr.
12:30: Mongatxurrak-Ezinleike	Aterpe
16:00: Irubide-Apa Oxemai	Pagomendi
17:00: Pagomendi-Amoskibar	Bildurbarek
18:00: Bildurbarek-Torrekua	Guadalest
19:00: Guadalest-Komando Piperrak	Torrekua

DOMEKAN, BARRUAN

9:30: Amilotx-Bayer	Errotagain
12:30: Bar Canalejas-Eri	Kresala
16:00: Pinturas Bergara-Kanpazar	Artusamak
17:00: Artusamak-Latex	Patxaran
18:00: A Ze Flaxa-Patxaran Team	Latex

DOMEKAN, KANPOAN

10:30: Errotagain-Fac	Amilotx
11:30: Etengabe-Aluminios Kresala	Canalejas

ARGI!

Errotagain taldeko jokalaririk bat zigortua

Errotagain eta Bar Canalejasen arteko partiduan epaileak txartel urdina erakutsi zion Errotagain taldeko Aitor Antón jokalaritari. Bere taldeak partidua erraz irabazi arren (9-2), zigorra jaso zuen eta, ondorioz, ezin izango ditu hurrengo bi partiduetan jokatu.

Puntualtasuna

Zenbait partidu agindutako orduan baino zertxobait beranduago hasten dira; horregatik, antolatzaileek garaiz iristeko eskatzen diete talde guztiei.

mahoneroak



JOSE LUIS MARTINEZ
BKEko fisioterapeuta

Zapatuan, lehendabiziko 18 minutuetan, Sestaok hiru gol sartu zizkigun eta, hortik aurrera, ezinezkoa egin zitzaigun partiduari buelta ematea. Izan ere, partidua erabat apurtu zen 0-3ko emaitzarekin. Lemoa eta Realarekin batera, Sestaok hirugarren mailako talderik indartsuenetakoa da eta Agorrosinen oso partidu ona egin zuen. Hiru urte daramatzat futbol taldeko fisioterapeuta lanetan eta ez dut horrelako beste emaitzarik gogoratzen. Bergara partidua irabazteko asmoarekin zelairatu zen arren, ezer gutxi egin ahal izan zuen.

Bigarren zatian emaitza zelabait konpontzeko asmoa genuen, baina bizkaitarrek, gure atera hurbiltzen ziren bakoitzean asmatu egiten zuten. Dena dela, ez dut uste emaitza honek jokalariei eragingo dienik. Taldea joan zen urtean baino hobeto ari da eta kategoriari eusteko ez genuke arazorik izan beharko. Ea aste-bukeran, San Pedroren aurka, zapatuan galdutakoa errekuiperatzerik dugun...

A Ze Flaxa, Guadalest, Errotagain

A Ze Flaxak lidertzan jarraitzen du eta Guadalestek erraz irabazi zion Shaktaleri. Bestalde, Errotagaineak uste baino arazo gutxiago izan zuen.



GORA eta BEHERA



Vacalouras, Ezinleike, Agirrebeña

Gol zaparradarik handienak jaso zituzten: Vacalourasek Aterperen aurka (1-10), Agirrebeñak Kanpazarren kontra (1-9) eta Ezinleikek Artusamaken aurka (3-14).

SAILKAPENA

A multzoa

	P	J
1. Bar Ugarte	36	13
2. Errotagain	28	13
3. Pagomendi	26	13
4. Bildurbarek Opel Lam	22	12
5. Bar Canalejas	22	13
6. Amoskibar	21	13
7. Fac	19	12
8. Eri	13	13
9. Buya	10	12
10. Apa Oxemai	7	13
11. Irubide jatetxea	7	11
12. Torrekua	6	13

B multzoa

	P	J
1. Aterpe	31	11
2. Kanpazar Harrobia	25	11
3. Orzi	24	10
4. Aluminios Kresala	23	11
5. Amilotx	19	11
6. Pinturas Bergara	16	11
7. Bayer	12	11
8. Vacalouras	7	11
9. Eengabe	7	11
10. Cine Bank Irimo	4	11
11. Agirrebeña jatetxea	3	11

C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa	27	11
2. Artusamak	22	10
3. Mongatxurrak	21	9
4. Komando Piperrak	19	9
5. Guadalest	18	10
6. Txipiron	13	10
7. Shaktale	13	10
8. Patxaran Team	4	10
9. Ezinleike	3	9
10. Latex	-2	10

Informazio hau babesle hauei esker:

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 943 76 53 12



OGIZUN
koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13

Otsein
Saria

Sestaoren aurkako partiduan honako hauek nabarmendu ditugu:

Koldo Erostarbe.....3 puntu
Mikel Osoro.....2 puntu
Asier Rodriguez.....1 puntu


Etzeko partiduetan bakarrik hartzen dira kontuan.

B e r g a r a k o

OSASUN GIDA

- **ALBAITARIAK: ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaitari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 •
- IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 ■ **ANALISI KLINIKOAK: LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA: IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK: ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA.** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B.** 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **LASKURAIN HORTZ KLINIKA.** Boni Laskurain 4, behe. 943 76 56 57 • **TRIPALDI Enrike.** Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76
- **ERREHABILITAZIO FISIKOA: LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK: ARZAK Miren** (Reeducacion Postural Global). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 • **BASTERRETxea, Maria.** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **HOMEOPATA: SUSANA GANUZA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **GINEKOLOGOA: SERRANO DOKTOREA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK: AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 21 62 • **AZPEITIA Iruene.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 73 43 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 •
- ETXEBERRIA Ana.** Errekalede 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA: BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA: OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50 ■ **PODOLOGOAK: ALTUBE Eburne.** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32 ■ **PSIKIATRA: GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ekerra. 943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK: PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

Osasunez bizi izateko!



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

bonofotoa

Zein da, garai batean errota izandako, Angiozarko baserri honen izena?

galde debalde

1. Ze izen du alzheimerria dutenen Gipuzkoako senitartekoen elkartea?


- A- AFAGI
- B- FAAGI
- C- AGAFI

2. Nork egingo du Errege Seminarioan auditoriuma egiteko proiektua?

- A- Iñaki Aspiazuk
- B- Iñaki Bergaretzek
- C- Iñigo Aspiazuk

3. Nori zuzenduta dago Debagoieneko kirol zirkuitoko tenis txapelketa?

- A- 10 urtetik gorakoei
- B- 10-14 urte bitartekoei
- C- 14 urtetik gorakoei



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria **Paul Azkargorta**rentzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Pauli!

Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:

Bonofotoa: **Zubieta kalea**

Galde Debalde: **1-A, 2-A, 3-A**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____


Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Asier Altuna 'Kixi', gidoilaria

«Luzemetraia da orain gehien interesatzen zaidan formatua»

Filmerako jauzia egin du Asier Altunak. Film laburrak egin ditu orain arte. Hala ere, egunotan film luzerako gidoia bukatzen dabil Telmo Esnal lagunarekin batera.



Kixik aurtengo Korrikako bideoa ere egin du.

ARTXIBOA

G. Zelan egin duzue laburretik luzerako jauzia?

E. Film luze baten konartzeko moduko istorioa aspalditik daukagu esku artean. Zinemagile batendako, gaur egun, film luze bat egitea da aurretik film laburrekin zabalduetako bide honekin finkatzeko modu bakarra, eta, horrez gain, norberarendako ere kristoren erronka da.

Film baten aurrean egoiteak kuriositatea, ezjakintasuna eta kristoren ilusioa eragiten ditu, egindako film laburren aurrean izan genuen sentsazioa, hain zuzen ere. Film luzea egitea laburra egitea baino erosoagoa da. Izan ere, luzea egitekoan dirua dago tartean eta langile profesionalen ingura zaitezke. Horrela, pelikularen pisu guztia ez da zuzendariaren geratzen.

G. Noiz hasi zineten?

E. Aspaldi hasi nintzen gidoiak idazten, Andoingo eskolan ikasketak bukatu

eta berehala. Urte askoan istorioari detailetoak gehitzen joan naiz. Duela bi urte serioago hartzea pentsatu nuen, eta lagun batekin, Pablo Buenorekin, lehen tratamendu bat idatzi genuen. Tratamendu hori Eusko Jaurlaritzara bidali nuen iaz, eta, horrela, gidoia idazteko laguntza eman zidaten. Orain, gidoia bukatzen dabil Telmorekin batera.

G. Zein da istorioaren mamia?

E. Barkatuko didazue, baina ezin dizuet oraingoz ezer esan.

G. Produktoreen atea jotzen hasi zarete?

E. Oraindik ez gara horretan hasi; gidoia bukatuta eduki behar da horretarako.

G. Film laburrak alde batera utzi dituzue?

E. Luzemetraia da orain-txe bertan gehien interesatzen zaigun formatua, baina hori egin arteko bidean, ez dakigu zer topatuko dugun. Oso interesgarria iruditzen zait laburra. Ikus-entzutekoetan, azkenaldian ukitzen ari garen beste formatu batzuk ere oso interesgarriak dira: iragarkiak, bideoklipak...

G. Julio Medemekin ari zara lanean orain dela gutxi.

E. Azken filmean. Gus-tura egiteaz gain, Juliok zelan lan egiten duen ikusteko aukera izan dut, eta, era berean, Formentera bisitatzeko ere bai.

Academica Palanca taldearen musika-umorea Novedadesen

Con un canto en los dientes lana eskainiko du *Academica palanca* gaur, eguakitzan, Novedades aretoan, 22:30ean. Kantuz zein berbez, baina batez ere kantuz, gai ugari landuko dituzte emanaldian: zinema ('Western'), politika ('Clinton'), sexua ('La Apoyadura'), bikote harremanak ('Querida esposa'), kritika soziala ('Me da igual!'), eta abar. Horietan guztietan nabaria da estilo garratza, eta gizarte gaiak leku handia dute. *Academica palanca* ohiko ildoari jarraitu dio lan berrian, baina kritika soziala areagotuz.

Antonio Sanchez (gitarra eta ahotsa) eta Miguel Vigilek (gitarra eta ahotsa) osatzen dute taldea; Luis M^a Moreno "Pirata"k (hainbat instrumentu eta ahotsa) ere kolaboratzen du.



Academica palancako kideak.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Dixula

**BOKATAK
DAUZKAGU**

Barrenkalea 32
Tf. 943 76 44 95



San Antonioko koadrila, 1946

Aste honetako erretratu zaharra 1946. urtekoa da eta Aseginolazaren tailerraren aurrean aterata dago, San Antonion. Anastasio Herranek azaldu digunez, domeka eta jaiegunetan Eibarko argazkilari bat etortzen zen eta koadrilako

lagunek argazkia ateratzeko aprobetxatu zuten. Koadrilakoek 20 urte inguru izango zizuten orduan, eta beraiekin batera hainbat gaztetxo ageri dira. Hauek dira argazkikoak, ezkerretik eskumara:

Goian: Luis Silva eta Antonio Herran.

Zutik: Andres Bonbulu, Ceferino, Ramon Estevez, Anastasio Herran (Eulalia Muñoz iloba besoetan duela), Jesus Manso eta Ana Mari Arruabarrena.

Makurtuta: Abetxuko eta Felix Gallastegi.
Argazkia: Anastasio Herran

ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Irizar jauregian gaituztu, zatoz!

URRATS
TABERNA

KOKTEL BEREZIAK
GAUETAN

Ibargarai 4
943 76 52 92

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irala 5 ☎ 943 76 53 09

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldearen erreforma,
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59



zumelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Guztion artean
lortu dugu.



Herri Onurako Irakaskuntza Kooperatiba izendatu gaitu Eusko Jaurlaritzak.

Eusko Jaurlaritzak Herri Onura izaera eman dio Aranzadi Ikastola Kooperatiba Elkarteari, bere jarduerarekin Euskal Herriaren interes orokorraren alde lan egiten duelako.

Aranzadi ikastolaren funtzionamenduaren printzipioak:

- 1| Gizartearen ekonomi eta kultur garapenean zuzentasun eta elkartzasunez laguntzea.
- 2| Guraso, ikasle eta profesionalen bizitza-kalitatea hobetzea, behar komunak aseiz.
- 3| Guraso, ikasle eta profesionalen partaidetzan oinarritutako funtzionamendu demokratikoa izatea.
- 4| Gestio autonomoa, profesionalak kontratatu, inbertsioak egin eta proiektuak garatzerakoan.
- 5| Euskal Herri osorako hezkuntza proiektu batekin konprometitutako mugimendu bateko partaide.



ARANZADI
IKASTOLA

Aranzadi ikastolaren hezkuntza proiektuaren ezaugarriak:

- 1| Euskal Herriaren izaeran oinarrituta, munduko kultura guztiei irekita egotea.
- 2| Solidaritatea, elkarrizketarako jarrerak eta elkarbizitzarako arauetako errespetua garatzea.
- 3| Guraso, ikasle eta profesionalen arteko harremanak bultzatuz, hezkuntza aberastea.
- 4| Euskaraz gain, beste hizkuntzen ezagupena ahalbidertzea: gaztelera, ingelesa, frantsesa...
- 5| Teknologia berrietan, irakaskuntza metodoetan eta ikasmaterialetan aitzindariak izatea.

GRUPO

RKUZ

1950-2000



Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

expert



Mitarre 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

FAGOR

50 urte

gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik